# Urola Garaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

2021eko abendua



# Aurkibidea



1. Sarrera ........ 4

2. Berdintasunerako araudi-markoa........ 5

3. Ebaluazio-diagnostikoaren ondorio nagusiak. ........ 8

4. Planaren printzipio gidariak ........14

5. Planaren bermeak........16

6. Planaren indarraldia. ........19

7. Planaren esku-hartze ardatzak ........ 20

8. Planaren helburu estrategikoak........ 27

9. Planaren helburu operatiboak........31

10. Ekintza-plana ........ 35

11. Planari lotutako inpaktu adierazleak. ........ 63

12. Planaren kudeaketa egiturak........ 67

13. Plana garatzeko aurrekontua........ 76

14. Planaren komunikazioa. ........77

15. Planaren ebaluazio-sistema........ 79

Dokumentu honek **Urola Garaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana** jasotzen du.

Dokumentu hau **Elhuyarrek** osatu du, **Urola Garaiko udal-elkartearen** eskariz eta Berdintasun Sailarekin elkarlanean.

Egitasmo honekin, Urola Garaiko udal-elkarteak azken urteetan egindako lanari jarraipena eman nahi dio, hurrengo urteetarako estrategia eta bide-orria ezarriz.

# Urola Garaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana



## 1. Sarrera

Urola Garaiko udal-elkarteak **ibilbide bat egina du emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremuan**. Horren adierazgarri da dagoeneko bi Plan diseinatu eta garatu izana:

- Urola Garaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana (2011-2014)
- Urola Garaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2016-2019)

Udal-elkarteko Berdintasun Sailak, Berdintasunerako II. Planaren indarraldia bukatuta, orain arte egindako lanaren eta egungo egoeraren balantzea egin, eta ateratako ikaspen eta ondorioekin Berdintasunerako III. Plana diseinatzeko prozesu parte-hartzailea jarri zuen abian 2020 udazkenean.

Txosten honetan, Urola Garaiko udal-elkarteak datozen 6 urteetarako berdintasunaren eremuan garatuko duen estrategia bildu dugu. Datozen orrietan estrategia hori aletuko dugu printzipio eta bermeak definituz, bai eta datozen urteetarako ekintza-plana, trakzio eta garapen markoak eta arduradunak finkatuz, hala nola, segimendurako eta ebaluaziorako baliabideak zehaztuz.

## 2. Emakume eta gizonen berdintasunerako araudi-markoa

Emakumearen aurkako bereizkeria era guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioak emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa aldarrikatu zuen; printzipio hau NBEren Biltzar Nagusiak 1979ko abenduan onetsi zuen eta Espainiar Estatuak 1984an berretsi. Konbentzio horren 2. artikuluan, ondoko konpromisoa hartu zuten NBEko kideek: Berdintasun printzipioa legeen bidez edo beste bitarteko egoki batzuek erabiliz benetan betearazten dela bermatzea.

Beste alde batetik, 1999ko maiatzaren 1ean Amsterdamgo Ituna indarrean jarri zenetik, emakumeen eta gizonen berdintasuna **Europar Batasunaren funtsezko printzipio bilakatu da.** Europar Batasunaren Ituneko 3.2. artikuluarekin bat, Batasuneko eta kide diren estatuetako politika eta ekintza guztietan integratu behar da emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatu eta horien berdintasuna sustatzeko helburua.

**Horiez gain, Espainiar Estatuko Emakumeen eta Gizonen egiazko Berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoa dago.** Lege horrek Estatuaren eskumen guztien arauketa modu zehatzean garatzen du. Horrela, udalek berdintasun errealaren lorpenean duten betebeharra zehazten da 21.1 artikuluan: "tokian tokiko erakundeek berdintasun-eskubidea barneratuko dute euren eskumenetan eta gainerako herri-administrazioei lagunduko diete zentzu honetan".

Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.1. artikuluak, Espainiako Konstituzioan xedatutakoari aipamen bat eginez, berdintasunerako eskubidea eta sexuaren ziozko bereizkeriarik eza aldarrikatzen da. Horrez gainera, Estatutuaren 9.2.d artikuluan zera adierazten da: herri-aginteek pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintzak sustatzeko eta hori lortzeko oztopoak ezabatzeko betebeharra dute, berdintasun hori benetan eta modu eraginkorrean gauza dadin.

Era berean, **Eusko Legebiltzarrak, otsailaren 5eko 2/1988 Legea** onartuta (Emakumearen Euskal Erakundea sortarazteari buruzkoa da lege hori), lege horren zioen adierazpenean jasotzen den bezala, **lehen mailako gaitzat jo zen emakumeekin bereizkeriaz jokatzeko era guztiak benetan ezabatzea eta emakumeek gure Erkidegoko alor guztietan esku hartzeari bultza egiteko**

**beharrezkoak izan daitezkeen neurriak hartzea**; halaber, bere gain hartu zuen arlo horretan ekintza bateratuari indar egiteko lana ere.

2/1988 Legea garatze aldera, **Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeentzako ekintza positiboko zazpi plan** onetsi ditu. Plan horietan euskal herri-administrazioen esku-hartzearen oinarrizko gida-lerroak jasotzen dira, emakumeen eta gizonen berdintasuna bizitzako eremu guztietan bultzatzeari dagokionez.

Bestalde, **Emakundek 2018ko ekainean onetsitako EAEko Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako VII. Plana** dago. Plan horretan, XI. Legegintzaldian berdintasunaren arloan euskal botere publikoen jarduera bideratu behar duten gidalerroak bildu dira. Aurreko sei planak indarrean izan diren urteetako eboluzioaren eta aurrerapenen emaitza gisa sortu da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen onespenak irekitzen duen markoan.

**EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak** bere egin du berdintasunerako gobernantzaren ildotik lan egin beharra, berdintasunerako bidean. Estrategia horiek gehitze-efektua dakarte eta berdintasunerako helburuak lortzen laguntzen dute. Zehazki, VII. Planean, **mainstreaming-a eta gobernantza oinarrian** daude. Baina, horretaz aparte, beste hiru ardatz ere bildu dira, berdintasunaren arloan esku hartzeko zutabe handiak biltzen dituztenak: **emakumeen ahalduntzea**, **ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea** eta **emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak**.

**Apustua, une honetan, zera da, berdintasunerako eskubide hori lege-testuetan formalki aitortua ez ezik, praktikan benetan aplikatua izatea bermatzea**, eta hori da, hain zuzen ere, **Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legearen xedea**. Lege horrek mekanismo eta neurri zehatz batzuk planteatzen ditu, euskal herri-administrazioek eragin handiagoko politikak eta jarduketak abiarazi ditzaten lortzeko, halako moldez non emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren fenomenoa -egiturazkoa eta unibertsala- gizartetik desagerraraz dadin.

Gaur egun, 4/2005 Legea eguneratzeko Lege Proiektua Gasteizko Parlamentuaren esku dago, eztabaidatzeko eta ekarpenak biltzeko. **Emakumeen eta Gizonen**

# Urola Garaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana



**Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxista Erauzteko Lege** Proiektua indarrean jartzeak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan administrazioek dituzten eginkizunak gehitzea ekarriko du, baita emakumeen aurkako indarkeria matxistari osotasunean ekitea ere.

Lurralde-mailara etorrita, kontuan hartzekoa da Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu berri duen **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana** (2020-2023). EAEko Planaren egitura jarraitzen du, baina, izaera propioa du.

Norabide horretan, Urola Garaiko udal-elkarteak berdintasunerako bi plan diseinatu eta garatu ditu. Hortaz, **ibilbide bat egina** du emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremuan, bi planen garapenean zehar egonkortu dena. Orain, hirugarren Plan honekin **hurrengo sei urteetarako berdintasun politiken oinarriak** finkatu nahi ditu udal-elkarteak, berdintasunaren ikuspegitik lana nondik nora egin nahi duten ardaztuz.

## 3. Ebaluazio-diagnostikoaren ondorio nagusiak

Planaren nondik norakoen inguruan sakontzen hasi aurretik, ezinbestekoa izango da azken lau urteetan egindako lanaren azterketatik ateratako ondorioak aztertzea, modu honetara beharrak zein diren jakin eta Planean planteatzen diren ekintzen zergatia ulertzeko. “Urola Garaiko II. Berdintasun Planaren ebaluazioa eta egungo egoeraren diagnostiko-txostena” dokumentuan, azken 5 urteotan Urola Garaian berdintasun-politikek izan duten bilakaeraren zenbait korapilo daude. Korapilo horiek ondorio gisa sailkatzen dira, arestian aipatutako dokumentuan erabilitako lau ardatzen eskemari jarraituz. Horiek bat datoz Urola Garaiko II. Berdintasun Planaren 4 ardatzekin.Udalen eta mankomunitatearen artean jarduteko eredua definitu, adostu eta sistematizatu, arkitektura instituzional argi, dinamiko eta funtzionala sortuz.

**Gobernu Ona**

Berdintasunerako II. Planak eskualdean berdintasun politiken garapena bermatzeko tokiko eta eskualde-mailako konpromiso politiko eta teknikoa finkatzea eskatzen zuen. Alegia, udalek udal-elkarteari emandako agindua berresteaz gain, erantzunkidetasunez erantzun beharra zegoen, eskualdeko berdintasun politiken koordinazio politikoa eta teknikoa sendotu beharra zegoen eta udaletan berdintasun politiken garapenerako genero-arkitektura minimo bat eraiki.

Izan ere, 2007an Urola Garaiko eskualdeko udalek, berdintasun politikak Urola Garaia udal-elkartetik bultzatu, garatu, jarraitu eta ebaluatzearen aldeko apustua egin zuten. Eredu horrek eskaintzen dituen aukerak zabalak izanik, bere mugak agerian geratu dira, udaletatik modu erantzunkidean erantzun ez den heinean .

Berdintasunerako II. Planak Urola Garaian berdintasunerako politikak garatzeko eredua fintzea eta kudeaketa eta koordinazio beharrei erantzun bateratua ematea barnebiltzen zuen. Urte hauetan heldu ez zaion heinean, korapilo horrek II. Planaren potentzialitatea mugatu du.

Edozein modutan, Udal bakoitzak bere neurrian, baina egin du bide bat zeharlerrotasun-estrategia txertatzen, pixkanaka. Bide honi behar bezala heldu eta modu koordinatuan aurrerapausoak sistematikoki ematea falta da. Horretarako, eskualde mailan berdintasunezko zeharkako politikak artikulatzeko, beharrezkoa da erantzunkidetasun-maila handitzen jarraitzea, bai Mankomunitatearen, haren mendeko erakundea den Uggasaren eta hura osatzen duten udalen artean, bai eskualdeko Berdintasun Arloaren eta Udal bakoitzeko eta Uggasako arlo teknikoen artean.

**Emakumeen ahalduntzea**

Emakumeen Etxearen sorrerak inflexio puntu nabarmena ezarri du eskualdean. Erreferentziazko gunea da, nahiz eta erreferentzialtasun hori pixkanaka irabazten doan. Jabetze Eskola ere egonkortu egin da eta urtetik urtera gero eta emakume gehiagorengana iristen da. Ahalduntze estrategiak bere potentziala askatzeko eskualdean inbertsioak beharko dira.

Berdintasun sailak eskualdeko emakumeen ahalduntze-prozesuetan eragiteko dituen mugak agerian geratu dira azterketa honetan. Hainbat emakume kolektiborengan iristeko edota horiek gerturatzeko zailtasunak azaleratu dira, hala nola, emakume migratuak, dibertsitate funtzionala dutenak, gazteak, pentsionistak... Azpiegiturak dituen mugak aintzat hartzea inplikatzen du, eta hori kontuan hartuta eskaintza dibertsifikatzea, eduki zein espazio aldetik. Horrez gain, eskaintzaren komunikazioan eta zabalpenean defizit nabarmenak identifikatu dira.

Emakumeen antolaketari dagokionez, feminismoak azken urteetan bizi duen gorakada Urola Garaian ere nabarmena izan da; horri esker Martxoaren 8 jendetsuak bizi izan dituzte azken urteetan eta emakume asko gerturatu dira antolatu diren ekimenetara. Horrez gain, Legazpiko Matraka taldea ere asko indartu da azken urteetan eta gogotsu dabiltza herrian eragiten.

Eskualdeko emakume talde eta talde feministek badute elkarren berri eta neurri batean behintzat koordinatzen saiatzen dira, nahiz eta hor ere baduten bide bat egiteko.

Mugimendu feminista aktibo eta indartsu badago ere, horrek ez du islarik izan eragiteko gaitasun eta aukeretan; izan ere, instituzioekiko harremana ez da oso estua eta eragiteko gaitasun mugatua du. Zentzu horretan, aipatu beharra dago koordinaziorako bide batzuk jorratzen hasi direla jada, nahiz eta parte hartze egonkorrerako gune bat sortzeak bestelako baldintza batzuk eskatzen dituen

**Ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea**

Hasteko eta behin, gizarte bezala aurrerapausoak ematen jarraitzeko ezinbestekoa da sentsibilizazioa lantzen jarraitzea, sektore eta ikuspegi ezberdinetatik berdintasunaren garrantzia aitortu eta balio feministak izango dituen gizarte bat sustatzeko.

Hezkidetzaren alorrean bide bat egin da azken urteetako lanari esker eta hainbat gauza sistematizatu eta barneratzeko balio izan du, oso modu positiboan baloratzen dute egindako lana, sektoreko agenteek. Edozein modutan, gizarteak erronka berriak dituen heinean eta sindemia1 egoerak zenbait arrisku azkartu dituen heinean, eskaintzen diren zerbitzuak eta programak egungo errealitatera egokitzea ezinbestekoa izango da. Izan ere, haur eta gazteek politikoki zuzena den diskurtsoa neurri batean behintzat ikasita dutela agerian geratu da; baina, aldi berean, zailtasunak dituzte jazarpen egoerak identifikatzeko.

Azpimarratu beharra dago eskualdeko enpresak, besteak beste lege-betekizunak direla medio, Berdintasun Planak lantzen ari direla eta bide bat egiten ari direla alor honetan.

Hala ere, termino orokorretan, ezin dugu esan emakumeen egoera hobetu denik. 2020an bizi dugun krisi sozio-sanitarioak eta ekonomikoak agerian utzi dute zaintza-lanen ezinbestekotasuna, batetik, eta zaintza-lanak zein baldintzatan egiten diren,

[1] Sindemia bat da bi epidemia edo eritasun elkartuen edo sekuentzialen agerraldi bat edo gehiagoren batura, elkarreragin biologikoak dituen populazio batean, gaixotasunaren pronostikoa eta karga handitzen dutenak. Sinergia eta epid1 hitzak elkartuta sortutako neologismoa da terminoa. Merrill Singer-ek asmatu zuen 1990eko hamarkadaren erdialdean, eta 2009ko Introduction to syndemics liburuan garatu zuen. 2. Sindemiak pobreziak, estresak edo egiturazko indarkeriak eragindako osasun-ekitaterik ezaren ondorio izaten dira, eta osasun publikoan, osasun komunitarioan eta gizarte-baldintzek osasunean dituzten eraginetan interesa duten epidemiologo eta antropologo medikoek aztertzen dituzte. (Iturria: https://es.wikipedia.org/wiki/Sindemia)

bestetik. Geure gizartean korapilo handia da hau eta, hortaz, egoerari irtenbideak bilatzeko formulak hausnartzeko momentua ere bada.

Zaintza-lanetan diharduten emakumeei dagokienean, azpimarratu da eremu feminizatua eta prekarizatua dela eta zailtasunak dituztela, gainera, ezinbestean eskatzen dieten trebakuntzara sarbidea izateko. Gainera, alor honetan dabiltzan emakumeetako asko eta asko migratuak dira, eta inmigrazio legea tarteko, dituzten zailtasunak asko areagotzen dira, traba handiak izaten baitituzte egoera erregularrean egon ahal izateko.

**Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak**

Nerabe eta gazteekin urteetan landu da sentsibilizazioa, batik bat Beldur Barik! Programaren haritik. Eragile guztiek bat egin dute programa horrek eraginkortasuna galdu duela esatean, zaharkituta geratu da, eta formula berriak beharrezkoak dira egun dauden egoerei erantzun eraginkorrak emateko. Izan ere, gazteekin lanean diharduten profesionalek adierazi dute indarkeria identifikatzeko zailtasunak dituztela gazteek eta nerabeek, eta hori kezkagarria dela oso.

Zerbitzu, baliabide eta aukera ezberdinen berri emateko lanketaren beharra agerian geratu da, azken urteetan ez baita horretan indarrik jarri. Batik bat azpimarratu da kolektibo zehatzekin gaia lantzeko beharra, adibidez, adineko emakumeekin.

Indarkeria matxista kasuen arretarako koordinazio protokoloa ez da aktibo egon denbora luzez II. Planaren garapeneko epealdian, eta gainera, eguneratu beharra dago. Jardunean eta koordinazioan egon den eten horrek egoeraren segimendua egitea eta erakunde ezberdinen arteko koordinazioa lantzea oztopatu du, nahiz eta kasu konkretuen harira erakunde ezberdinak beraien artean koordinatzen diren tarteka.

Hori horrela, zenbait behar identifikatu dira: gune formal horiek berraktibatzea, protokolo berria lantzekoa, bai eta datu-bilketarako existitzen den tresna fintzekoa ere, gaur egun zailtasun asko sortzen baitizkie bete behar duten profesionalei.

Indarkeria jasan duten emakumeek egin behar duten ibilbide horretan Emakumeen Etxeak paper garrantzitsua duela azpimarratu da, eta handiagoa izan lezakeela, nahiz eta horretarako duen erreferentzialtasuna gehiago landu beharko litzatekeen. Izan ere, emakumeek gune informal edota ez-instituzional gisa ikusten dute maiz Emakumeen Etxea, eta lasaiago jotzen dute bertara. Gainera, gerora ahalduntze-prozesu bat egiteko aukera ere zabaltzen die.

Ildo honetan bereziki azpimarratu da kasuen detekzio goiztiarra eta oneratze prozesuak sakonago lantzeko beharra.

Ondorio horietan oinarrituta, Urola Garaian berdintasunaren arloan identifikatutako erronka nagusiak hauek dira:

1. Genero-zeharlerrotasun estrategian sakondu, Udaletan eta udal-elkartean, zein bere menpeko erakundeetan (Uggasa) egiten den lan guztia bustiz.
2. Eskualdeko mugimendu feminista eta emakume-taldeen eta instituzioen arteko zubiak argitu eta elkarlanerako agenda eraiki.
3. Emakumeen Etxearen erreferentzialtasuna landu eta edukiz bete, ahalduntzearen, saretzearen zein indarkeria matxistaren alorrean.
4. Jabetze Eskolaren eskaintza zabaldu eta dibertsifikatu, edukiei zein espazioei dagokienez.
5. Hezkidetza programak, zein haur eta gazteekin lantzen diren prebentzio-programak egungo errealitatera egokitzen jarraitu.
6. Zaintza-lanei, balio sozial, politiko eta ekonomikoa aitortzea. Zaintza lanetan, eta nagusiki ezkutuko ekonomian, ari diren emakumeen bizi-baldintzak edo egoera hobetzeko esku-hartzeak zehaztea.
7. Gizarte antolaketa erantzunkide baterantz transitatzeko agente publiko zein pribatuen elkarlanerako bideak pentsatzea.
8. Indarkeria jasan duten emakumeei eskaintzen zaien arreta eta ibilbideetan, oneratze printzipioa txertatzea.

9. Indarkeria matxista kasuen aurrean jarduteko koordinazio protokoloko mahaia berraktibatu eta Protokolo berria lantzea.

## 4. Planaren printzipio gidariak[2]

Planak, ekintza eta helburu zehatzez haratago, hainbat printzipio gidari ditu oinarrian, zeinak ezinbestekoak izango diren hurrengo urteetako lana nola eta nondik egingo den ulertzeko. Azken batean, printzipio gidari hauek izango dira Planaren filosofia osatuko dutenak eta ekintza guztien atzean egongo diren oinarria:

- **Paradigma feminista**: feminismoak gidatzen du Berdintasunerako III. Plana, pentsamendu feministako lerro eta dimentsio anitzak barne. Teoria eta mugimendu feminista eraldaketa sozialerako ekarpen handia egiten ari da une historiko-politiko honetan, agenda feminista aintzat hartzean datza.

- **Aukera-berdintasuna**: emakumeek eta gizonek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak, kulturalak, era berean baliatzen dituztela bermatu beharko da. Eta aukera-berdintasuna bermatu behar da, alde batetik, boterea, baliabideak eta onurak eskuratzeko abiapuntu edo hasierako baldintzetan, eta bestetik, horiek guztiak baliatzeko eta behar den moduan kontrolatzeko baldintzetan.

- **Intersekzionalitatea**: desberdintasunei heltzeko ikuspegi gisa, kontuan hartzen du generoa beste diskriminazio faktoreekin (arraza, klase soziala, desgaitasun-maila, adina, hizkuntza, orientazio sexuala, identitate sexuala, familia-eredua eta inguruabar pertsonalak eta sozialak) duen aldibereko erlazioa. Estrategia gisa ulertuta, diskriminazioaren oinarriak lotzen ditu diskriminazio horiek elikatzen dituen gizarte, ekonomia, politika eta lege-inguruarekin eta presio eta pribilegio bizipenak egituratzen dituenarekin.

- **Genero-ikuspegia**: analisi eta tresna metodologiko gisa, mendekotasun patriarkarrean oinarritutako genero desberdintasunak agerian jartzeko baliatu da. Alegia, emakumeen aurkako diskriminazioaren aurka kokatzen den agenda

---

[2] Erreferentzia nagusiak, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planetik eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Gipuzkoako III. Foru Planetik eskuratu ditugu.

eraiki nahi den honetan, agenda horrek sistematikoki izan du kontuan gizonek eta emakumeek dituzten behar eta interes ezberdinak.

- **Emakumeen ahalduntzea**: Planaren ardatzetako bat izateaz gain, agenda osoa gidatzen duen printzipioa ere bada, emakumeen ahalduntzea helburua, tresna eta prozesua den heinean. Eta modu integralean hartu behar da aintzat, ahalduntze pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa barnebilduz.

- **Desberdintasunak murriztea:** printzipio hau aukera-berdintasunaren eskutik badoa ere, gizarteko esparru eta sektore guztietan generoagatik edo bestelako zapalkuntzengatik eratortzen diren desberdintasunak aintzat hartu eta horiek murrizteko politika aktiboak inplementatzea ekarriko du.

- **Giza garapen iraunkorra. Agenda 2030**: giza garapen osoak, jasangarria izan dadin eta egiturako aldaketak bultza ditzan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta genero-ikuspegia txertatu behar ditu gizarte, ekonomia eta ingurumen politiketan.

## 5. Planaren bermeak

Planaren garapena bermatzeko ezinbesteko konpromisoak jaso ditugu jarraian. Berme hauen betetze-maila zenbait adierazleren bitartez neurtuko dugu Planak irauten duen epealdian, alegia, konpromiso neurgarriak izango dira eta hauen betetze-mailak zerikusi zuzena izango du Planaren arrakastarekin.

- **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako konpromiso politikoa**. Udal-Elkarteak zein Udalek genero-zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko konpromisoa hartu (konpromisoa onartu Udalbatzetan). Lehendik dauden koordinazio-egiturak sustatzen jarraituko du Udal-Elkarteak, eta udalek tokiko egiturak sortu eta sustatuko dituzte.

- **Beharrezkoak diren baliabideak** (aurrekontua, giza-baliabideak, baliabide teknikoak, trebakuntza) **berdintasuneko politika publikoen esku jartzen jarraitu**. Berdintasun politikak garatzeko beharrezko aurrekontua eta bitartekoak bermatzen jarraitu, (giza-baliabideak barne), pertsona horien lan-baldintzak zainduz.

- **Planean inplikatutako erakundeek eta sailek erantzunkidetasuna izatea**. Berdintasunerako gobernantzaren ardatzean jasotako ekintzek norabide horretan eragiteko bokazioa dute. Berdintasuna sustatzeko sail guztien erantzunkidetasuna lortzea prozesu bat da: lan egiteko moduak aldatzea eskatzen du (elkarlanean) eta norberaren lana ulertzeko moduak ere aldatzea (orain arte "besteen" gaitzat hartu izan ditugunak geure eginez, besteak beste). Berme hau ezinbesteko baldintza da genero-zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko eta, aldi berean, erronka bat ere bada.

Jarraian ageri den taulan ikus dezakegu, zehaztasun gehiagorekin berme bakoitza helburu eta adierazle batzuekin lotuta. Adierazle horiei segimendua egingo zaie urtero.

| BERMEAK | EGITASMOAK | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|
| **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako konpromiso politikoa** | Udal-Elkarte gisa, bai eta Udalek genero-zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko konpromisoarekin jarraitzea (konpromisoa onartu Udal-Elkarteko Asanblada eta Batzorde eragilean eta Udalbatzetan), horretarako beharrezko bitartekoak bideratu eta koordinazio-egiturak onartuz. | 4 Udaletako Udalbatzetan genero-zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko konpromisoa hartu izana: Bai/ez |
| | | Onartutako konpromisoaren forma eta babesa: zer eratako konpromisoa hartu da (adierazpena...) eta zenbateko babesa izan duen (aho batez onartua, aldeko/kontrako botoak) |
| | | Estrategia garatzeko koordinazio-egiturak edo koordinatzeko bideak martxan jarri izana, horien izaera (zer eratako egiturak jarri diren martxan) eta partaideak (kopurua, sailak, pertsonak sexuaren arabera) |
| **Beharrezkoak diren baliabideak berdintasuneko politika publikoen esku jartzea.** | Berdintasun politikak garatzeko beharrezko aurrekontua bermatzen jarraitu. | Berdintasun politikak garatzeko Udal-Elkarteko urtekako aurrekontu kopurua eta aurrekontu osoarekiko zer % den |
| | Berdintasun politikak garatzeko beharrezko bitartekoak bermatzen jarraitu, pertsona horien lan-baldintzak zainduz. | Berdintasun politikak garatzeko Berdintasun-politikak garatzeko baliabideak eta horien izaera (prestakuntza, giza baliabideak...) |
| | | Lan-baldintzekiko asebetetze-maila |
| | | Trebakuntza-saioen kopurua |
| | | Trebakuntza-saioetan parte-hartu duten pertsona kopurua sailaren, udalaren eta sexuaren arabera |

| | | |
|---|---|---|
| **Planean inplikatutako Udalen, sailen eta erakundeen erantzunkidetasuna** | Berdintasunerako gobernantzaren ardatzean jasotako ekintzek norabide horretan eragiteko bokazioa dute. Berdintasuna sustatzeko sail guztien erantzunkidetasuna lortzea prozesu bat da: lan egiteko moduak aldatzea eskatzen du (elkarlanean) eta norberaren lana ulertzeko moduak ere aldatzea (orain arte "besteen" gaitzat hartu izan ditugunak geure eginez...). Berme hau ezinbesteko baldintza da genero-zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko eta, aldi berean, erronka bat ere bada. | Berdintasun Sailaren eta Udaletako arduradun politiko eta teknikoen arteko harremana |
| | | Sail ezberdinen arteko lankidetza/elkarlanaren bidez garatutako ekimen kopurua (urteka, inplikatutako sailak) |
| | | Bi urterik behin erantzunkidetasun-maila neurtzeko inkesta. Inkestan jasotako emaitzen eboluzioa litzateke adierazlea. |

## 6.Planaren indarraldia

Urola Garaiko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Planak 6 urteko indarraldia izango du: 2021ean hasi eta 2026an bukatzea du xede.

III.Plan honek aurreko biek baino indarraldi luzeagoa izatea planteatzen da Planak izan nahi duen irismena eta jasotzen dituen aldaketak gauzatzeko epealdi zabalagoa beharko duelako. Gainera, urteen poderioz ikusi da eskualde-mailako Plana izanik denbora gehiago behar izaten dela hainbat lanketa egin eta aplikatzen hasteko.

Horrez gain, udal-elkartearen erritmoak hobeto enkajatuko du epealdi honetan; izan ere legegintzaldi aldaketa 2023an izango da eta tarteko ebaluazioa eginda aukera emango du egokitzapenak egiteko eta hurrengo urteetan lantzeko dauden neurrien artean lehentasunak hurrengo lau urteetarako programarekin lerratzeko.

## 7.Planaren esku-hartze ardatzak

Berdintasunerako III. Planean Berdintasunerako gobernantzaren ardatzak izaera estrategikoa eta Planaren osotasunean eragiteko helburua izango du.

Horrez gain, eta orain arte egindako bidearekin koherentzian eta Emakunderen Berdintasunerako VII. Planarekin lerratuz, beste hiru ardatz definitu ditugu: Emakumeen Ahalduntzea, Ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea eta Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak.

Ohiko ardatzez gain, Urola Garaiko III.Planean zaintzak beste entitate bat izan behar zuela baloratu genuen; hori dela eta, ardatz propio bat izango du. Modu honetara, gaiari duen garrantzia eta zentralitatea ematen zaio, modu integralean landuz.



Jarraian, banan-banan aletuko ditugu lan-ildo guztiak:

## Berdintasunerako Gobernantza

Urola Garaiko udal-elkarteak bide bat egin du berdintasun politiken inplementazioan baina aurrerapauso kualitatiboa emateko momentua da, testuinguru politikoak (Berdintasun lege-proiektu berria) zein sozialak (feminismoaren bultzada) horretarako bide ematen duten heinean. Datozen urteetan berdintasuna ardatz izango duen Gobernantzaren aldeko estrategia lehenetsiz, udal-elkartean zein eskualdeko 4 Udaletan, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko estrategian urrats sendoak ematen jarraitzeko baldintzak areagotuko dira.

Genero-ikuspegia administrazioan txertatzeak, berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzen laguntzen du. Izan ere, esku-hartze publikoaren eguneroko jardunean genero-ikuspegia integratzen badugu, emakume eta gizonen egoera, baldintza eta premia ezberdinak modu sistematikoan aintzat hartzea lortuko dugu, batzuen eta besteen abiapuntuak kontuan hartuz.

Berdintasunaren aldeko gobernantza garatzea ardura partekatua inplikatzen du, hots, berdintasuna bultzatzea Berdintasun Sailaren ardura ez ezik, inplikatutako eragile eta sail guztien ardura bilakatzea. Beti ere, Berdintasun Sailaren eskutik eta horretarako, baliabide tekniko eta ekonomiko nahikoekin hornitzea bermatzen jarraituz.

Udaletako gobernantzan genero-ikuspegia txertatzeko, udal-langileak zein Uggasako teknikariek berdintasunean trebatu behar dute, genero-arrakala nagusiak ezagutu eta horietan esku-hartzeko bitartekoen ezagutzatik programak diseinatu ahal izateko.

Planaren garapenerako konpromiso politikoa, baliabide nahikoa eta erantzunkidetasuna bermatzen jarraitzea berebiziko garrantzia izango du berdintasun parametroetan oinarritutako gobernantza-eredua inplementatzeko.

Horrez gain, gardentasunaren eta kontu emate publikoaren ikuspegitik, berdintasun-politikak ebaluatzea ezinbestekoa izango da, eta horretarako baldintzak sortu beharko dira.

Horrek guztiak, Urola Garaiko udal-elkartea zein berau osatzen duten 4 Udalak berdintasunaren alde hartutako konpromisoa indartzeaz gain, beren esku-hartze publikoa bidezkoagoa bilakatuko du.

## Emakumeen ahalduntzea

Emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarrituko den gizartea eraikitzeko emakumeen ahalduntzean eragitea ezinbestekoa bilakatzen da, euren parte-hartzea bultzatuz, eta emakumeak, historia, politika, ekonomia eta kulturako objektu izateari utzi eta beraien bizitzako subjektu aktibo bihurtuz.

Esku-hartze ardatz hau, Agenda 2030, gizarte-eredu jasangarriagoa izateko helburu estrategikoekin lerrokatuko da, izan ere, emakumeen ahalduntzea betekizun eta berme bat da emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde gizartean egin behar den eraldaketa sozialerako.

Eremu honetan azken urteetan urrats nabarmenak eman badira ere, egindakoa finkatu eta egonkortzeko erronka izango dugu datozen urteetan. Datozen urteetako erronka izango da Jabekuntza Eskolaren eskaintza eta irismena dibertsifikatzea, eskualdeko ahalik eta emakume gehienei iristeko helburuarekin, Emakumeen Etxeak protagonismoa irabazteko esku-hartzeak indartzeaz batera.

Intersekzionalitatea ardatz hartuta, erronka izango da, Urola Garaiko aniztasuna aintzat hartuta lan egitea. Bide horretan, eskema honi jarraituko diogu: emakumeen eta gizonen desberdinkeria-egoeren kontzientzia hartu (jabetu), emakume bezala gaitasunak landu (ahaldundu) eta boterea hartuz egoera hori aldatzeko eragiteko ahalmena eduki (boteretu).

## Zaintza-lanen ekonomia feminista

Ekonomia feministatik zainketak aztertzeak esan nahi du mundua pentsatu eta diseinatu behar dela, “bizitzari eusten dioten eta sistema kapitalista heteropatriarkalean ezkutuan dauden eta historikoki emakumeekin eta feminitatearekin lotuta dauden lan ikusezin guztiak agerian utziz” (eldiario.es: “Queda bonito hablar de igualdad en el mercado laboral y no plantearse quien lima el váter en casa”, entrevista a Amaia Perez Orozco, 2014). Horrela, zainketen ikusgarritasuna eta balioa sakontzea, bai eta haiekiko erantzukizuna ere.

Pertsonen eta bizien zainketa-beharrak asetzeko egiten diren jarduerak hartzen dira zainketatzat. Batez ere, emakumeek bi arlotan garatzen dituzte: etxean, ordainsaririk gabe, eta lanbidean, eta askotan (adibidez, barneko langileak, egoera administratibo irregularrean daudenak...), ordainsari gutxirekin eta lan-baldintza eskasetan. Ezinbestekoak diren lan horiek, batez ere, emakumeen esku geratzen dira, eta, alde horretatik, azterketa, txosten, adierazpen eta ikerketa askok erakusten dute giza eskubideen urrakeria, urrakortasuna eta urraketa direla sektore horretan lan egiten duten emakume asko egunero sufritzen dutenak, egoera horrek beren bizitzako arlo guztietan, baina bereziki eskubideak eta baliabideak eskuratzeari dagokionez, dituzten ondorioak aitortuz.

Kasu askotan, errealitate horrek beste aldagai batzuekin bat egiten du, hala nola jatorriarekin, egoera administratiboarekin, adinarekin, hizkuntzarekin edo aniztasun funtzionalarekin. Besteak beste, aldagai horiek aztertu, ikusarazi eta politika publikoetan eta herritarrei zuzendutako baliabideen eta zerbitzuen ibilbidean sartu behar dira, pertsona guztiek, bereziki behar handienak dituztenek, sarbidea izan dezaten bermatzeko.

Era berean, azken urteotan nabarmendu da beharrezkoa dela gogoeta egitea gizarteak nola har ditzakeen zainketak, eta hori lortzeko lanean hastea, bizitzako une guztietan pertsona guztiek behar baitituzte zainketak, mota eta intentsitate desberdinetakoak.

Gure gizartean, gaur egun, egiturazko arazoak daude zainketen erantzunkidetasuna sustatzeko, haien erantzukizuna emakumeen esku jarraitzen duelako, bai eremu profesionalean bai ez-profesionalean. Ideia honetatik abiatzen da: emakumeek beren eskubideak erabiltzeko dituzten oztopo handienetako bat, desberdintasunak eta aintzatespen falta alde batera utzita, zainketa-lanak birbanatzea da. Era berean, eten bat dago emakume "autoktonoen" eta zainketa-lanak egitera datozen emakume migratuen artean.

Garrantzitsua da Urola Garaiko Mankomunitateak eta hura osatzen duten udalek eragile aktiboak izatea, zainketak eta bizitza jasangarria zentroan kokatuko dituen eredu ekonomiko eta sozial baterako aldaketa sustatzeko, etxean zein kanpoan egiten diren etxeko lanak eta zainketa-jarduerak gizartean eta ekonomikoki onartzeko. Aintzatespen horretatik abiatuta, bidezko eredu ekonomiko eta sozial berrietara aldatzeko bidean aurrera egin liteke.

Pandemiaren testuinguruan eta ondoren, interesgarria izango da elkarte feministekin eta emakume-elkarteekin harremanak eta lankidetza-bideak ezartzea, betiere, ikuspegi intersekzionala kontuan hartuta.

## Ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea

Gizarte-eredu androzentriko eta matxista batetik berdintasunezko gizarte batera igarotzeko, beharrezkoa da sexu-hierarkia eta genero-desberdinkeriak gainditzea, bestelako balio sozial batzuk indartzea eta botere-eredu berriak eraikitzea. Sistema bidegabe eta desorekatu honi erantzungo dion eraldaketa, gizarte aurrerakoi eta jasangarriago baten aldeko apustua izan beharko litzateke.

Eskualdeko eragile sozial, politiko eta ekonomiko guztiak inplikatzea izango da, guztion eskubideak bermatzeko eta eredu sozial iraunkor eta berdinzaleago bat eraikitzeko bidea.

Lan-merkatuan argi eta garbi islatzen da sexuaren araberako egiturazko desberdintasuna, eta hori agerian geratzen da emakumeen eta gizonen arteko soldata-ezberdintasunean eta alde hori eragiten duten arrazoi guztietan. Beraz, hori guztia kontuan hartu behar da enpleguarekin zerikusia duten eta Mankomunitatearen eta/edo Udalen eskumenekoak diren ekintzak eta politikak diseinatzeko orduan; eta, era berean, haien eragina ebaluatu beharko da.Arreta berezia jarriko da lan-merkatuan dauden genero-joeren azterketan, lana bilatzeko eta ekimena bultzatzeko, batez ere, emakume-talde ahulenei dagokienez, emakumeen premia premiazkoenei (premia praktikoei) erantzun integralak eman ahal izateko eta epe luzerako interesak eskaintzeko. Alde horretatik, ezinbestekoa da emakumeen oinarrizko beharrak asetzea, gainerako ardatzetan aurrera egiten jarraitu ahal izateko.

## Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak

Emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriaren adierazpen larrienetakoa da indarkeria matxista. Ez da indarkeria erabiltzen duten gizon batzuen arazo indibiduala, baizik eta arazo estruktural eta sistemikoa da, bizitzako arlo guztiei eragiten diena, eta berau sostengatzen duen matxismoa desagerraraztea eskatzen duena. Horretarako, konponbidea berdintasuna orokortzetik etorriko da, gure gizartearen balio eta helburu gisa.

Gaur egun, emakumeen aurkako indarkeriak jarrera teoriko eta azalpen ugari sortu ditu ezagutzaren alor guztietan, eta horiek legearen esparruko, esparru psikosozialeko, laguntzaren esparruko eta abarretako neurrien garapena ekarri dute berekin, eta neurri horiek ezarrita indarkeria hori prebenitu, kontuan hartu eta desagertzen lagundu nahi dugu.

Emakumeen aurkako indarkeria matxista honako hauek osatzen dute: bikotearen edo bikotekide ohiaren indarkeria, familia barrukoa, sexu-indarkeria, sexu-erasoa, emakumeen eta nesken salerosketa, sexu-esplotazioa, emakumeen mutilazio genitala,

derrigorrezko ezkontzak eta bestelako praktika tradizional kaltegarriak, bortxaketa edo askatasun-gabetze arbitrarioa, tortura, jazarpena eta genero-indarkeria, eta emakumeen duintasuna lesionatu dezakeen beste edozein indarkeria mota. Hori guztia, edozein eremu publikotan edo pribatutan gertatzen direla ere. Hor sartzen dira, baina ez dira mugatzen familia-, lan-, hezkuntza-, osasun- eta kirol-eremuak, komunikabideak, aisialdi- eta jai-eremuak eta ingurune birtualera.

Urola Garaiko udal-elkartearen eta berau osatzen duten udal eta entitateen lehentasuna izango da batetik, prebentziorako politikak eta programak inplementatzen jarraitzea eta bestetik, indarkeria matxista jasan duten emakumeen eta haien seme-alabei arreta integrala ematea, hala nola, erreparazioa eta oneratzea bermatzea.

Prebentzioaren eremuan aurrerapauso nabarmenak eman dira Urola Garaian azken urteetan. Arretari dagokionez, barne-mailan indarkeria kasuen aurrean jarduteko protokoloa ez da aktibo egon denbora luzez eta berau eguneratu beharra dago. Kudeaketan inplikatutako agente guztien arteko sinergiak eta elkarlana fintzea izango da datozen urteetako erronka. Bai eta datu-bilketarako tresna berri bat ere, udal-mailakoak zein udalaz gaindikoak izan.

## 8. Planaren helburu estrategikoak

Urola Garaiko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Planak, 5 ardatz eta 13 helburu estrategiko barnebiltzen ditu.

Gobernantzaren ardatzean berdintasunerako konpromiso politikoa eta teknikoa finkatu nahi da, genero-zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko eta, genero-ikuspegia botere publikoaren politika eta ekintza guztietan txertatzeko printzipioa gauzatu ahal izateko, politika horien diseinutik hasi eta ebaluaziora arte. Gobernantza eredua egonkortzeko, sistematizazioa eta koordinaziorako eta elkarrekintzarako espazioak beharko dira. Esku-hartze integral horrek, Urola Garaiko udal-elkarteak berdintasunaren alde orain arte egindako ibilbidean urrats kualitatiboa suposatuko du eta eskualdeko udalen esku-hartze publikoa bidezkoagoa bilakatuko du.

| **1. BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA** |
|---|
| 1.1. Berdintasunerako koordinazioa eta elkarlana bermatzen jarraitu |
| 1.2. Eskualde-mailako zein udaletako politiketan genero-ikuspegia txertatzeko ezagutza bereganatzea |
| 1.3.Lan-prozeduretan genero-ikuspegia txertatzea |

Ahalduntzearen esparruan azken urteetan urrats nabarmenak eman ditu udal-elkarteak. Egindakoa finkatu eta irismena zabaltzeko erronka izango du datozen urteetan Urola Garaiko udal-elkarteak. Intersekzionalitatea ardatz hartuta, erronka izango da eskualdeko emakumeen aniztasuna aintzat hartuta lan egitea. Bide horretan, eskema honi jarraituko diogu: emakumeen eta gizonen desberdinkeria egoeren kontzientzia hartu (jabetu), emakume bezala gaitasunak landu (ahaldundu) eta boterea hartuz egoera hori aldatzeko eragiteko ahalmena eduki (boteretu).

| 2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA |
| --- |
| 2.1. Ahalduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoa |
| 2.2. Emakumeen partaidetza soziopolitikoa eta eragina sustatzea |

Urola Garaiko udal-elkarteak zaintza eta bizitza jasangarriak erdigunean jartzen dituen eredu ekonomiko eta soziala sustatu nahi ditu, eta aldaketa horietan agente aktiboa da. Helburu horrekin hausnarketa sustatuko du zaintza-eredua birpentsatzeko. Etxeetan, zein, etxeetatik kanpo egiten diren etxeko lanak eta zaintza-jarduerak bide desberdinetatik aitortzea lehen urratsa izango da, ondoren, zaintza eta bizitzaren jasangaritasuna erdigunean jartzen dituen ekonomia- eta gizarte-ereduetara eraldatzeko.

| 3. ZAINTZA-LANEN EKONOMIA FEMINISTA |
| --- |
| 3.1. Zaintza-lanak sozialki balioan jartzea |
| 3.2. Zaintzaren erantzunkidetasuna sustatzea |
| 3.3. Zaintza lanetan ari diren emakumeen bizi- eta lan-baldintzak duintzeko programak bultzatzea |

| | Identifikatutako behar horiei erantzuteko baliabideak eskaini, beharrezkoa balitz berariazko programa edo lanketak sortuz. | | | | x | x | x | Udaletako gizarte zerbitzuak Berdintasun Saila | | Beharrei erantzuteko sortu diren ekimen berri kopurua. |

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Pobrezia egoeran edo arriskuan dauden emakumeei Udalak eskaintzen dizkien baliabide eta erantzunekiko gogobetetzea neurtu, eta baliabideak/zerbitzuak hobetzeko egitasmoak martxan jarri. | | | | x | | | Udaletako gizarte zerbitzuak Berdintasun Saila | | Gogobetetzea neurtzeko lanketa egin da: Bai/Ez<br>Ariketa horretan parte hartu duten emakume-kopurua.<br>Baliabide/zerbitzuak hobetzeko hartutako neurri-kopurua. |
| **4.2.2. Emakumeen ekintzailetza sustatzea** | Gure esku dauden ekintzailetza-programetan genero-ikuspegia txertatu eta egindako lanari segimendua egin, izandako inpaktua ebaluatuz. | x | x | x | x | x | x | Uggasa Lanbide | | Genero-ikuspegia txertatzeko ariketa egin da: Bai/Ez<br>Lanari segimendua egin zaio: Bai/Ez<br>Inpaktua ebaluatu da: Bai/Ez |
| | Ekintzailetza-programetan emakumeentzako mentoretza programak bultzatu. | x | x | x | x | x | x | Uggasa Lanbide | | Mentoretza programak diseinatu diren: Bai/Ez<br>Mentoretza programak antolatu diren: Bai/Ez<br>Parte hartzaile kopurua. |
| **4.2.3. Emakumeen enplegagarritasuna areagotzea** | Enpleguaren inguruan egiten diren azterketa guztietan genero-ikuspegia txertatu, errealitatearen argazki ahalik eta errealena izateko. | x | x | x | x | x | x | Uggasa Lanbide | | Genero-ikuspegia txertatu den azterketa kopurua. |
| | Enplegua sustatzeko egiten diren jardueretan genero-ikuspegia txertatu eta emakumeen ibilbideei berariazko segimendua egitea. | x | x | x | x | x | x | Uggasa Lanbide | | Genero-ikuspegia integratzen duten jarduera-kopurua.<br>Jarduera horietan parte hartzen duten emakume-kopurua. |

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Enplegura sarbidea sustatzeko antolatzen diren ikastaroetan kontziliazioa aintzat hartu, zaintza-ardurak dituzten emakumeek ere parte hartzeko aukera izan dezaten. | x | x | x | x | x | x | Uggasa<br>Lanbide | | Kontziliazioa aintzat hartzen duten ikastaro-kopurua.<br>Ikastaro horietan parte hartzen duten pertsonen artean zaintza-ardurak dituzten pertsona kopurua (sexuaren arabera bereizita). |

## 5.ARDATZA: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

### 5.1. Indarkeria matxistaren prebentzioa bultzatzea

| Helburu operatiboak | Ekintzak | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 | Arduraduna(k) | Inplikatutako eragileak | Jarraipen-adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **5.1.1. Prebentzio programak eguneratzea eta eragite-gaitasuna berreskuratzea** | Indarkeria matxistaren inguruan herritarrak sentsibilizatzeko ekimenak eta kanpainak egin. | x | x | x | x | x | x | Berdintasun Saila | Udalak | Antolatutako ekimen-kopurua. Ekimenetan parte hartu duten pertsona kopurua, neurgarria bada (sexuaren eta kolektiboaren arabera bereizita). |
| | Eskoletan egiten diren prebentzio-programa orokorrak berraztertu, hauen inguruko hausnarketa egin eta egoera eta behar berrietara egokitu, eraginkorragoak izan daitezen. | x | x | x | | | | Berdintasun Saila | | Programa berraztertu da: Bai/Ez<br>Programa egokitu da: Bai/Ez |
| **5.1.2. Baliabideen inguruko ezagutza handitzea** | Herritarrei, oro har, eta emakumeei bereziki, indarkeria sexistari aurre egiteko Udalak eta gainerako erakundeek dituzten bitarteko eta baliabideen berri eman urtero. Adibidez, martxan dauden baliabide eta zerbitzuen gida zabalduz eta, beharrezkoa bada, baliabide eta euskarri gehiago sortuz. | | x | x | x | x | x | Berdintasun Saila | Udaletako gizarte zerbitzuak | Baliabideen berri emateko hartutako neurri-kopurua. |

| 5.2. Indarkeria matxista kasuen detekzioa eta arreta hobetzen jarraitzea | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Helburu operatiboak** | **Ekintzak** | **2021** | **2022** | **2023** | **2024** | **2025** | **2026** | **Arduraduna(k)** | **Inplikatutako eragileak** | **Jarraipen-adierazleak** |
| **5.2.1. Indarkeria kasuen detekzioa eta jarraipena hobetzea** | Jarraipen mahaiko eragileen arteko koordinazio-mekanismoak hobetu. | x | x | x | x | x | x | Berdintasun Saila | Erakunde arteko protokoloan inplikatutako eragileak | Jarraipen-mahaiko bilera-kopurua. Bileretan parte hartu duten eragile-kopurua. |
| | Erakunde arteko koordinazio protokoloa aztertu eta berria diseinatu, prozesuan eragile guztiak inplikatuz, modu horretara elkarlanerako giroa sortuz. | | x | x | | | | Berdintasun Saila | Erakunde arteko protokoloan inplikatutako eragileak | Koordinazio protokoloa aztertu da: Bai/Ez<br>Egokitzapena egin da: Bai/Ez |
| | Jarraipen mahaian, emakumeen informazioa biltzeko erabiltzen den sistema aztertu eta egokitu. | | x | x | | | | Berdintasun Saila | Erakunde arteko protokoloan inplikatutako eragileak | Sistema aztertu da: Bai/Ez<br>Egokitzapenak egin dira: Bai/Ez<br>Erregistroan parte hartzen duten eragile-kopurua. |
| | Artatze-prozesuan esku-hartzen duten langile guztiei formakuntza eskaini indarkeria matxista kasuen aurrean artapen egokia egiteko. Emakunderen "Jabetuz" programaren bidez edota berariazko saioak antolatuz. | | | x | x | x | | Berdintasun Saila Udalak | Erakunde arteko protokoloan inplikatutako eragileak | Antolatutako edo eskainitako trebakuntza-kopurua.<br>Trebakuntzetan parte hartu duten pertsona-kopurua (eragilearen arabera bereizita). |

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Artatutako emakumeen asebetetze-maila neurtu protokoloaren ebaluazioen bidez. | | | | | | x | Berdintasun Saila | Erakunde arteko protokoloan inplikatutako eragileak | Protokoloa ebaluatu da: Bai/Ez.<br>Ebaluazioan parte hartu duten emakume-kopurua. |

## 5.3. Indakeria jasan dutenak oneratzea eta ahalduntze prozesuak sustatzea

| Helburu operatiboak | Ekintzak | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 | Arduraduna(k) | Inplikatutako eragileak | Jarraipen-adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **5.3.1. Erreparazio integrala (juridiko, ekonomikoa, osasun-arlokoa...) eta maila guztietan: indibidualean, kolektiboan eta publikoan bermatzea.** | Udal-Elkarteak eta Udalek haien esku dauden baliabideak eskaini prozesu hauek bizi izan dituzten emakumeentzat: udal-etxebizitzak, dirulaguntzak, aholkularitza juridikoa, aholkularitza psikologikoa... (hauetako batzuk Emakumeen Etxearekin elkarlanean garatu litezke) | | x | x | x | x | x | Berdintasun Saila<br>Udal guztiak | | Udalek zein Udal-elkarteak eskaintzen dituen baliabide-kopurua.<br>Baliabide hauek erabili dituzten emakume-kopurua. |
| | Sare herritarra eraiki eskualdeko mugimendu feministarekin elkarlanean | | | | x | x | x | Berdintasun Saila | Udal guztiak | Sarea sortzeko prozesuan parte hartu duten eragile/emakume kopurua.<br>Sarea sortu da: Bai/Ez |

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Erreparazio sozial-publikorako ekimenak diseinatu eta garatu, emakumeekin elkarlanean. | | | x | | x | | Berdintasun Saila | Udal guztiak | Erreparazio sozialerako antolatutako ekimen-kopurua.<br>Emakumeekin/Mugimendu feministarekin elkarlanean antolatu den: Bai/Ez |
| | Eskualdean indarkeria matxista kasu sonaturen bat edota erasoren bat dagoenean erantzun publikorako protokoloak aktibatu, eskualdeko mugimendu feministarekin koordinatuz. | x | x | x | x | x | x | Udal guztiak | Berdintasun Saila | Kasuren baten aurrean erantzun publikorako protokoloa aktibatu da: Bai/Ez<br>Eskualdeko mugimendu feministarekin koordinazioa egon da: Bai/Ez |
| **5.3.2. Jabekuntzarako bitartekoak eskaintzea** | Emakumeek lideratutako oneratzera bideratutako espazio kolektiboa sortu (Emakumeen Etxearekin elkarren eskutik joan liteke). | | x | x | x | x | x | Berdintasun Saila | | Oneratzeko espazioak sortu dira: Bai/Ez<br>Horietan parte hartzen duten emakume-kopurua.<br>Emakumeen gogobetetze-maila. |

## 11. Planari lotutako inpaktu-adierazleak

Berdintasun Plana izatea eta hau garatzea garrantzitsua da, baina betetze-maila bezain garrantzitsua (edo garrantzitsuagoa) da egiten ari garen lanarekin lortzen ari garen inpaktua neurtzea. Horretarako, Planean proposatutako ekintzak aintzat hartuta, helburu bakoitzean aurrerapausoak ematen ari garen ala ez neurtzeko inpaktu-adierazle batzuk zehaztu ditugu.

Hona hemen inpaktu-adierazleen zerrenda. Hauei segimendua egitea ahalbidetuko du Exceleko tresnak.

| HELBURUAK | INPAKTU-ADIERAZLEAK |
|---|---|
| **1.1.2. Udaletan berdintasun politikak aurrera eramatea, sailen arteko koordinazioa eta elkarlana bermatzen jarraitzeko, egiturak, bitartekoak eta formulak sortzea eta elikatzea.** | Koordinazioa eta elkarlana bermatzen jarraitzeko Udaletan sortu diren egiturak, bitartekoak eta formulen deskribapena |
| | Koordinazio-egituren bilera-kopurua eta horietan parte hartu duten udal-sail kopurua. |
| **1.2.1. Genero-ikuspegia txertatzeko prestakuntza areagotzea udal-teknikari eta Udal-Elkarteko langile eta Uggasako teknikarien artean.** | Udaletako trebakuntza-planetan, genero-zeharlerrotasuna txertatzeko trebakuntzarekin zerikusia duten ikastaroen % |
| | Trebakuntza horietan parte hartu duten pertsona-kopurua (sailka) eta gogobetetze-maila. |
| **1.3.4. Kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea.** | Berdintasunerako klausulak txertatu diren kontratuen % |
| | Klausulak txertatu dituen sail-kopurua. |
| **1.3.5. Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea (Generoaren Araberako Aurretiazko Ebaluazioaren azterketak)** | GEAEa kopurua, Udalaren/Erakundearen eta sailaren arabera sailkatuta. |

| | |
|---|---|
| **1.3.6. Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea.** | Eredua definitu da: Bai/Ez |
| | Martxan jarritako ekimen-pilotu kopurua. |
| **2.1.1. Emakumeen Etxea Urola Garaiko emakume guztientzat ahalduntze pertsonala eta kolektiboa lantzeko espazioa izan dadin lortzea** | Bitarteko tekniko eta ekonomikoen ezaugarriak |
| | Emakumeen etxearen dinamikan parte hartzen duten emakume eta eragile kopurua. |
| **2.1.3. Eskualdeko emakumeen eta norbanako feministen arteko sareak indartzea** | Sareak eraiki dira: Bai/Ez |
| | Sare horietan biltzen diren emakumeen kopurua eta aniztasun-maila (jatorri, adin, dibertsitate funtzional...arabera) |
| | Eskualdeko mugimendu feminista eta emakumeen elkarteen artean elkarlanean garatutako ekimen-kopurua. |
| **2.2.1. . Eskualdeko mugimendu feministaren eta emakumeen antolakuntza-gaitasunak eta eragin politikoa indartzeko esku-hartzeak martxan jartzea** | Laguntza ekonomikoa, materiala eta teknikoa kuantifikatu |
| **2.2.3. Udal politika publikoetan eragiteko bideetan sakontzea** | Berdintasun Kontseilua eratzeko prozesua abiatu da: Bai/Ez |
| | Berdintasun Kontseilua eratzeko gogoeta-prozesuan inplikatutako norbanako/eragile kopurua. |
| **3.1.2. Zaintza-eredu justu eta erantzukide baterantz trantsitatzeko urratsak ematen hastea, gogoeta eta praktika eraldatzaileak uztartuz** | Definitu diren egitasmo berritzaileen kopurua. |
| | Martxan jarri diren egitasmo berritzaileen kopurua. |
| **3.2.3. Erakunde publikoen (Udal-Elkarte zein Udalak) eskaintza birpentsatu eta hobetzea** | Eskaintza hobetzeko definitu eta inplementatu diren esku-hartze kopurua eta mota. |

| | |
|---|---|
| | Esku-hartze horietan parte hartu duten edo hartzaile izan diren pertsona-kopurua, sexuaren arabera bereizita (kuantifikatu daitekeen kasuetan). |
| **3.3.2. Zaintzaile profesionalen lan-baldintzak hobetzea** | Martxan jarri diren/babestu diren gizarte-ekimeneko zenbat egitasmo: kopurua eta horien izaera. |
| | Ekimen horien hartzaile izan diren pertsona-kopurua, sexuren arabera bereizita. |
| **3.3.3. Udal-Elkartea eta Udalak bere eskumenekoak diren zerbitzuen kontratazioan lan-baldintzak hobetzeko neurriak hartzea.** | Pleguak egokitutako kontratu-kopurua. |
| **4.1.1. Diskurtso feminista herritarren artean zabaltzeko ekimenak garatzea, berdintasunaren aldeko gizarte eredu bateranzko oinarri gisa** | Sortu eta garatu diren ekimen kopurua eta horien izaera |
| **4.1.2. Hezkidetza modu koordinatuan lantzea eskualde-mailan** | Hezkidetza-mahaiaren dinamika: bilera-kopurua eta parte-hartzen duten eragile-kopurua. |
| | Dinamika horietatik diseinatu eta abiatu diren egitasmoak |
| **4.2.1. Pobreziaren feminizazioa murrizten laguntzeko programak garatzea** | Pobrezia-tasaren bilakaera eskualde-mailan<br>Uggasaren adierazleak aztertu |
| **4.2.3. Emakumeen enplegagarritasuna areagotzea** | Langabezia-tasaren eta okupazio-tasaren bilakaera eskualdean<br>Uggasaren adierazleak aztertu |
| **5.1.1. Prebentzio programak eguneratzea eta eragite-gaitasuna berreskuratzea** | Prebentzio-programa berrien irismena neurtu: zenbat haur-gazterengana iristen dira… |
| | Programen ebaluazio-adierazleen bilakaera |

| | |
|---|---|
| **5.2.1. Indarkeria kasuen detekzioa eta jarraipena hobetzea** | Koordinazio-protokoloaren sistematizazio-maila |
| | Koordinazio mahaiaren bilera-kopurua eta parte hartzen duten eragile-kopurua. |
| **5.3.1. Erreparazio integrala (juridiko, ekonomikoa, osasun-arlokoa...) eta maila guztietan: indibidualean, kolektiboan eta publikoan bermatzea.** | Sare-herritarren izaera, aniztasun-maila... |
| | Erreparazioa lantzeko antolatutako ekimen-kopurua. |
| **5.3.2. Jabekuntzarako bitartekoak eskaintzea** | Oneratzeko espazio-kolektiboen definizioa eta abiatzea egin da: Bai/Ez |
| | Espazio horietan parte hartzen duten emakume-kopurua eta aniztasun-maila |
| | Espazio horietan parte hartzen dutenen gogobetetze-maila. |

## 12. Planaren kudeaketarako egiturak

Urola Garaiko Berdintasunerako III. Planaren garapen egokia bermatzeko, beharrezkoak diren koordinazio-egiturak sortu eta martxan jarriko ditu Udalak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3. artikuluan jasotako printzipio orokorrei jarraituz: “Euskal herri-aginteek, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, elkarrekin lankidetzan aritzeko eta beren jarduketak koordinatzeko betebeharra dute, esku-hartze eraginkorragoak eta baliabideen erabilera arrazionalarekin bat datozenak egin ahal izan daitezen”.

Urola Garaiko Berdintasunerako III. Plana zeharkakotasunaren ikuspegitik landuko da, hots, Urola Garaiko udal-elkarteak, Urretxu, Zumarraga, Ezkio-Itsaso eta Legazpiko Udalek, hala nola, Uggasak bere gain hartuko dute.  Bai emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko konpromisoa; bai neurrien kudeaketa, e.a.

Zeharkakotasuna ezartzeko, erantzukidetasuna eta agente guztien inplikazioa ezinbestekoak izango dira Planaren garapenean. Izan ere, Berdintasun Sailaren lana eta inplikazioa ez ezik beste erakundeetako teknikariena ere beharrezkoa izango da, Planak alor ezberdin asko ukitzen baititu eta lana modu transbertsalean egitea askoz eraginkorragoa izango da inpaktu adierazgarria lortzeko.

Planaren bidez erdietsi nahi diren erronkak lortzeko, hainbat lan-esparru edo egitura beharrezkoak izango dira. Horietako bakoitzak funtzio eta zeregin zehatzak izango ditu. Egitura hauek udal-elkarteko Berdintasun Sailak bultzatu eta koordinatuko ditu. Bost dira garapenerako proposatzen ditugun egitura nagusiak:

1. Udal-elkarteko Berdintasun Saila
2. Eskualdeko Berdintasun Batzordea
3. Berdintasunerako eskualdeko Batzorde Teknikoa
4. Udal-Elkarteko Batzar Ejekutiboa
5. Eskualdeko mugimendu feminista, emakumeen elkarteak eta Emakumeen Etxeko erabiltzaileak diren emakumeen Foroa

Horiez gain, **udal bakoitzak bere barne koordinaziorako egiturak** sortuko ditu, urtez urteko plan operatiboen diseinu, jarraipen eta ebaluaziorako gure eraginkor izateko helburuarekin.

Jarraian, proposatutako egiturak, horien osaera eta funtzioak azaltzen dira.

Planaren garapenaren **ardura nagusia Berdintasun Sailak** izango du. Hau izango da planaren jarraipen estuena egingo duena, urtean urteko kudeaketa planak eta ebaluazioak burutuko dituena eta abar.

Berdintasun-Saila autonomoa da, Emakumeen Etxean kokatzen da eta bi berdintasuneko teknikari espezializatu ditu 2018. urtetik lanaldi osoz. Biek 150 orduko trebakuntza-maila dute eta berdintasunaren arloan esperientzia. Berdintasuneko teknikarien lanpostuak Uggasaren bidez kontratatu dira nahiz eta zerbitzua udal-elkarteari eskaintzen dioten.

| |
|---|
| **1. BERDINTASUN SAILA**<br>**Berdintasunerako III. Planaren garapen eta jarraipen koherente eta koordinatua bermatzea.** |
| **Parte-hartzaileak** |
| ● -Berdintasunerako Teknikariak |
| **Funtzioak** |
| -Berdintasun teknikaria:<br><br>1.Berdintasunaren arloan eskualdeko programazioa edo plangintza diseinatzen laguntzea.<br>2. Mankomunitatea osatzen duten udalentzat ekintza positiboko berariazko neurriak bultzatzea.<br>3. Departamentuei eta toki eta eskualde mailako gainerako entitate eta organoei aholku eta laguntza ematea, emakumeen eta gizonen |

berdintasunaren arloan, Mankomunitaterako zehaztutako irizpide komunei jarraikiz.
4. Mankomunitateko udalerrietan emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzeko programak, zerbitzu espezifikoak, programak eta baliabideak sortu eta/edo egokitzeko proposamenak egiten laguntzea.
5. Urola Garaian egon daitezkeen bereizkeria-egoerak identifikatzea eta horiek desagerrarazteko neurriak diseinatzea eta sustatzea.
6. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan sentsibilizatzeko eta trebatzeko ekintzak diseinatzen eta ezartzen laguntzea, udal bakoitzaren egitura tekniko eta politikoei, eskualdeko erakundeei eta Urola Garaiko herritarrei zuzenduta.
7. Mankomunitatearen, udalen eta eskualdeko erakundeen politika, programa, parte-hartze prozesu eta ekintza guztietan genero ikuspegia sar dadin bultzatzea.
8. Entitate publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea.
9. Emakumeen jabekuntza sustatzen laguntzea
10. II. Berdintasun Plana garatu, jarraipena egin eta ebaluatzea
11. Eskualdeko emakume taldeak dinamizatzea.
12. Udaleko teknikariei aholku ematea Eskualdeko Berdintasunerako II. Planean onetsitako eta beren arlo edo zerbitzuei esleiturik dauden ekintzak gauzatzeko.

<u>-Berdintasun Arloko koordinatzailea</u>

1.Berdintasunaren arloko eskualdeko programazioa edo plangintza diseinatzea, bai eta jarraipenerako eta ebaluaziorako mekanismoak ere.
2. Mankomunitatea osatzen duten udalentzako ekintza positiboko berariazko neurriak diseinatu eta bultzatzea.

3. Departamentuei eta toki eta eskualde mailako gainerako entitate eta organoei aholku eta laguntza ematea emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, Mankomunitatearentzat irizpide komunak ezarriz.
4. Mankomunitateko udalerrietan emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzeko programak, zerbitzu espezifikoak, programak eta baliabideak sortu eta/edo egokitzeko proposamenak egitea.
5. Urola Garaian egon daitezkeen bereizkeria-egoerak identifikatzea eta horiek desagerrarazteko neurriak diseinatzea eta sustatzea.
6. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan sentsibilizatzeko eta trebatzeko ekintzak diseinatu eta ezartzea, udal bakoitzaren egitura tekniko eta politikoei, eskualdeko erakundeei eta Urola Garaiko herritarrei zuzenduta.
7. Mankomunitatearen, udalen eta eskualdeko erakundeen politika, programa, parte-hartze prozesu eta ekintza guztietan genero ikuspegia sar dadin bultzatzea.
8. Entitate publiko eta pribatuekin harremanak eta parte hartzeko eta lankidetzarako bideak ezartzea, haien xede edo eginkizunen arabera emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzen badute.
9. Emakumeen jabekuntza sustatzeko espazioak eta prozesuak bultzatzea.
10. Berdintasun Plana garatu, jarraitu eta ebaluatzea
11. Eskualdeko Berdintasun Batzordea dinamizatzea
12. Eskualdeko emakume taldeen dinamizazioa planifikatu eta koordinatzea

**Funtzionamendua**

- Astero koordinazio-bilerak egiten ditu gune honek.

**Koordinazio politikoari** dagokionez, Planari jarraipena egiteko orain arte martxan egon den egitura mantenduko da, Berdintasun Batzordea hain zuzen.

Berdintasun Batzordeak hilero bilerak egiten jarraituko badu ere, gutxienez urtean bitan bilduko da berariaz Planari segimendu estua egiteko, urte hasieran eta urtearen erdia burutu ostean. Horrez gain, gainontzeko ohiko bileretan ere egingo dio segimendua Planaren ekintzen aurrerapen-mailari.

| **2. BERDINTASUN BATZORDEA**<br>**Berdintasunerako III. Planaren jarraipena egitea.** |
|---|
| **Parte-hartzaileak** |
| • Udal-Elkarteko eta Udaletako ordezkari politikoak<br>• Udaletako berdintasuneko arduradun teknikoak<br>• Berdintasun sailak dinamizatuta. |
| **Funtzioak** |
| • Urtez urteko esku-hartze planak diseinatzeko irizpideak lantzea.<br>• Aurrekontuak bermatzea.<br>• Berdintasun politiken jarraipena egitea.<br>• Udal-Elkartearen eta Udalen arteko interlokuzioa bermatzea |
| **Funtzionamendua** |
| • Planari lotutako berariazko saioak egingo ditu urtean birritan.<br>• Hilabetean behin |

Orain arte martxan egon ez bada ere, **sailen arteko koordinazioa bermatzeko batzorde teknikoa** ezinbestekoa izango da Planaren garapen egokia eta koordinatua egon dadin. Egitura hau berria izango da, eta xede nagusia Planaren markoan Udalen eta berdintasun sailaren artean koordinazioa bermatzen jarraitzea izango da.

**3. BERDINTASUNERAKO BATZORDE TEKNIKOA**

**Berdintasunerako III. Planaren garapen-tekniko koherente eta koordinatua bermatzea Udaletan, eta baita Planaren jarraipena egitea ere.**

**Parte-hartzaileak**

- Udaletako berdintasunerako arduradunak
- Berdintasun-Saileko teknikariak

**Funtzioak**

- Eskualdeko Berdintasunerako Plana diseinatzeko prozesuan parte hartzea.
- Udal bakoitzarentzat urtez urteko esku-hartze planen diseinuan parte hartzea.
- Urteko esku-hartze Planaren etengabeko jarraipena eta ebaluazioa egitea, bakoitzak bere udaleko inplementazioan lidergoa hartuz.

**Funtzionamendua**

- Bileren maiztasuna zehaztuko da

Udal-Elkarteko Batzorde Ejekutiboa organo mankomunatuek egin beharreko ekintzei dagokienez erabakitzeko ahalmena duen organoa da. Beraz, egitura hori beharrezkoa da plana garatu ahal izateko.

**4.UDAL-ELKARTEKO BATZORDE EJEKUTIBOA**
**Berdintasunerako III. Plana eta behar diren baliabideak onartu eta sustatzea**

**Parte-hartzaileak**

- Lehendakaria
- 3 lehendakaria orde
- Udalek izendatutako 7 batzordekide
- Idazkaria eta kontu hartzaile

**Funtzioak**

- Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako II. Eskualde Plana Batzarrean onartzea proposatzen du.
- Berdintasunaren arloko urteko plangintza onartu, eta Batzarrari aditzera ematen dio.
- Berdintasunaren arloko urteko aurrekontu proposamena onartzen du, hala badagokio Mankomunitatearen Batzarrean onartzearren.
- Berdintasun politikaren garapenaren eta ebaluazioaren urteko jarraipena egiten du.

**Funtzionamendua**

- Orokorrean hilabetean behin biltzen da

Horietaz aparte, **eskualdeko emakumeek eta mugimendu feministako eta emakumeen-elkarteetako kideek berdintasunerako politiketan eragin eta parte hartu ahal izateko foro baten sorrera** proposatzen da.

Egitura honen funtzionamendua zehaztu gabe badago ere eta adostu behar bada ere, urtean 3-4 aldiz bildu beharko da ezarri zaizkion funtzioak bete ahal izateko. Hala ere, beharren arabera maizago elkartzeko aukera ere baloratu daiteke.

**5. ESKUALDEKO MUGIMENDU FEMINISTA, EMAKUMEEN ELKARTEAK ETA ETXEKO ERABILTZAILEAK DIREN EMAKUMEEKIN FOROA**

**Berdintasunerako III. Planaren garapenari jarraipena eta ekarpenak egitea.**

**Parte-hartzaileak**

- Emakume elkarteetako ordezkariak.
- Mugimendu feministako kideak.
- Emakumeen Etxeko erabiltzaileak.
- Gaian interesa duen emakume oro.
- Berdintasun Sailak dinamizatuta

**Funtzioak**

- Urteko erronka nagusiak kudeatzeko adostasunak eraikitzea.
- Udal-Elkartearekin eta Udalekin interlokuziorako oinarriak jartzea.
- Jabekuntza Eskolako eskaintza diseinatzea.
- Urteko plangintzaren jarraipena eta ebaluazioa egitea

**Funtzionamendua**

- Urtean 3-4 aldiz bilduko da.
- Planaren garapenari eta aurrerapen-mailari segimendua egiteko hiru momentutan: urte hasieran urte berriko plangintza aztertzeko, urte erdian garapenari eta aurrerapen-mailari segimendua egiteko eta urte amaieran urteko balorazioa egiteko.

Horrez gain, Berdintasun Sailak orain arte bezala eskuz eskuko lana egingo du udaletako berdintasunerako arduradunekin bai eta hala eskatzen duen beste edozein teknikaririkin. Lotura hori berariaz landuko da Plan honen garapenean zehar.

Aipatu berri ditugunak Urola Garaiko Berdintasunerako III. Planari zein berdintasun politikei oro har segimendua egiteko berariaz sortu diren edota sortuko diren egiturak dira. Hala ere, horiez gain udal-elkarteaz gaindiko bestelako koordinazio espazioetan ere parte hartzen jarraituko du Berdintasun Sailak berak. Horien artean daude BERDINSAREA, Gipuzkoak Foru Aldundiak sustatutako guneak...

Lantalde hauez guztiez gain, Planean zehar planteatzen diren lanketa zehatz edo puntual batzuk egiteko berariazko lantaldeak sortzea baloratu daiteke sei urte hauetan zehar. Batzuk, aurrez aipatutako guztiak kasu, egonkorrak izango dira eta Planak dirauen bitartean mantendu egingo dira. Beste batzuk, aldiz, momentu puntualetarako sortuko dira eta lanketa konkretu hori burutu ostean desagertu ahalko dira. Azken batean, koordinaziorako behin-behineko tarteak izango dira, ekintzaren bat burutu ahal izateko berariaz sortuak.

## 13. Plana garatzeko aurrekontua

Berdintasun Sailak 2021erako aurreikusita duen aurrekontua 256.180 €-koa da. Aurrekontu honek Planeko ekintzak aurrera eramatea ahalbidetuko du. Honela, ekintza-planean aurreikusi bezala, urtetik urtera handitzen joango da Berdintasun Sailari zuzendutako aurrekontua, lan egiteko baliabide egokiagoak izatea ahalbidetuz. Beste alde batetik, aipatu beharra dago urte batzuetan Planak aurrekontu handiagoa eskatu dezakeela, landu beharreko ekintzen arabera; beraz, hori ere kontuan hartu beharreko zerbait da aurrekontuak zehazterako orduan.

Beste alde batetik, Planean bertan jasotzen den bezala, gainontzeko sailek eta eragileek ere (hala nola, Udalek) Planean beraiei dagozkien ekintzak garatu ahal izateko aurrekontua aurreikusi beharko dute.

## 14. Planaren komunikazioa

Komunikazioa Berdintasunerako Planen arrakastarako gakoetako bat da. Komunikazioa beharrezkoa da herritarrei eta eragileei asmoen berri emateko eta baita Planaren garapenean euren parte-hartze aktiboa eta inplikazioa lortzeko.

Hori dela eta, **Berdintasunerako Planaren indarraldian lotutako komunikazio-plana** lantzea aurreikusten da. Bertan jasoko dira, Planaren garapenean zehar sozializatu beharreko mezuak, bitartekoak eta baliabideak.

Planaren garapenean **3 komunikazio-une garrantzitsu** egongo dira:

1. **Hasierako komunikazioa:**

Behin Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana onartuta, horren berri emango da bai udal-elkartean, eskualdeko udaletan, Uggasan eta baita eskualdeko herritarrei ere:

- **Udal-elkarteko, udaletako eta Uggasako langile** guztiei eta, bereziki, Planaren ekintzen garapenean ardura zehatzak dituzten langileei:
  - Planaren nondik norakoak azaltzeko guneak sortu beharko dira.
  - Udal-langile guztiei Planaren txostena bidaliko zaie.
  - Plana sozializatzeko euskarria bidaliko zaie.
- **Ordezkari politiko** guztiei:
  - Planaren nondik norakoak sakonago azaltzeko plangintza espezifikoan sakontzeko lansaioa antolatuko da.
  - Ordezkari politiko guztiei Planaren txostena bidaliko zaie.
- **Eskualdeko mugimendu feministako eragileei eta emakume elkarteei:**
  - Planaren txostena bidaliko zaie.
- **Herritarrei**:
  - **Prentsa ohar baten** bidez prozesuaren amaieraren berri eta Plan berriaren indarraldiaren berri emango zaie herritarrei.
  - Planaren nondik norako nagusien berri emateko **euskarri bat** sortuko dugu sare sozialen bidez eta Udal-elkartearen, Udalen eta Berdintasun Sailaren bitartekoen bidez zabaltzeko.

- Plana Emakumeen Etxeko eta Udaletako **webguneetan txertatuko** da herritar guztientzat uneoro eskuragarri egon dadin.
- Inork informazio gehiago nahi edo beharko balu Berdintasun Sailera jotzeko aukera izango du.

## 2. Berdintasunerako Planaren garapeneko urteetan

- **Udal-elkarte mailan**:
  - Langileei Planaren berri emango zaie
- **Udal-mailan:**
  - Udaletako teknikariei urteroko plan operatiboen berri emango zaie.
- **Herritarrei:** Planarekin lotutako ekintza batzuek beste batzuek baino lanketa komunikatibo handiagoa eskatuko dute, herritarren parte hartzea edo inplikazioa beharko duten heinean. Kasuan kasu egokitzen joan beharko gara.
  - **Emakumeen Etxeko zein udaletako webguneetan** Planaren inguruko informazio eguneratua izango da; sare sozialak ere erabiliko dira, batik bat ekintza puntualen berri emateko.
  - **Berdintasun Batzordean** Planaren segimendua egingo da, honen nondik norakoak bileretan berariaz landuz.

## 3. Planaren amaierako komunikazioa

Berdintasunerako III. Plana osotasunean garatu ondoren, **ebaluazioan lorturiko emaitzen gaineko informazioa zabalduko** da udal-elkarte bezala, eskualdeko udaletan, zein herri- eta eskualde-mailan.

## 15. Planaren ebaluazio-sistema

**Ebaluazioa funtsezko prozesua** da Planaren betetze-maila zein den eta martxan jarritako ekimenek zer inpaktu izan duten jakiteko. Zentzu horretan, **hiru ebaluazio-mota** burutuko ditu Urola Garaiko udal-elkarteak, Berdintasun Sailaren gidaritzapean: alde batetik, **betetze-mailari** dagokiona, **emaitzei** dagokiena eta **inpaktuari** dagokiona.

Ebaluaziorako sistema egokia ezarriz, hurrengo **helburuak** lortu ahal izango ditugu:

- Urola Garaiko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana aplikatzeak eman dituen **emaitzak ezagutzea**.
- Planaren neurriekin eta datuak biltzeko prozesuarekin lotutako **arazoak detektatzea**.
- Berdintasun-politikak **erraztu edo lagundu dituzten faktoreak** identifikatzea.
- Genero-zeharlerrotasunaren estrategiak Udalaren barne-funtzionamenduan duen eragina, zein berdintasun-politikek herriarengan eta herritarrengan izan duten balizko **inpaktua edota eragina zein den ezagutzea**.

### 15.1. Urteko kudeaketa-planak

Urola Garaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana **urteko kudeaketa-planen bidez antolatu eta garatuko da.**

- Plana indarrean egongo den **urte bakoitzean urteko kudeaketa-plan bat** prestatuko da, aintzat hartu beharreko helburuak eta neurriak zehaztu ahal izateko. Programazio horiek Berdintasun Sailak landuko ditu, eta eragindako gainerako eragileekin kontrastatuko ditu. Planean ekintza bakoitza zer urtetan burutu behar den zehaztuta dago; hala ere, urtekako planek jarraipena erraztuko dute eta momentuko beharretara egokitzea ahalbidetu. Kudeaketa Plan hau, gainera, eragile bakoitzarekin berariaz landuko da. Hau da, Udal

bakoitzak erritmo, errealitate eta funtzionatzeko modu ezberdina dauka; hori dela eta, ezinbestekoa izango da urte hasieran berdintasun arduradunekin batera udal bakoitzari egokituko zaion Kudeaketa Plana diseinatzea, udalek modu autonomoan lan egitea errazte aldera.

- Urte bakoitzaren hasieran, Berdintasun Sailak aurreko urtean garatutako kudeaketa-planari dagokion **memoria** idatziko du; horretarako, Udalek zein Uggasak emandako informazioa erabiliko du.
- Urtez urteko **memoria-txostenak Planaren jarraipenerako Batzorde eta guneetan aurkeztuko dira.**

## 15.2. Segimendua

Urola Garaiko Berdintasunerako III. Planari segimendua egin ahal izateko, **Excel tresna bat sortu** da, Berdintasun teknikariei segimendu hau era erraz batean egitea ahalbidetzeko.

Excel dokumentua **lau orrialde edo ataletan banatuta** dago: Planaren ikuspegi orokorrari dagokiona, Planaren bermeak, Plana bera osotasunean eta inpaktu adierazleei dagokiena.

Lehenengo atalak Planaren argazki orokorra zein den ikusten lagunduko digu, hau da, planteamendu orokorra zein den argitzen eta orotara nolakoa den ikusten.



**Inpaktu adierazleen segimendua** laugarren atalaren bidez egin ahal izango dugu. Honetarako, beti ere ekintza zehatzak kontuan hartuta, helburu bakoitzari lotzen zaizkion inpaktu-adierazle batzuk identifikatu ditugu, egiten ari garen lan hori zer eragin izaten ari den neurtu ahal izateko.

| HELBURU-GAKOEN INPAKTU-ADIERAZLEEN TAULA | | 2021 | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HELBURUAK | INPAKTU-ADIERAZLEAK | Urretxu | Zumarraga | Legazpi | Ezkio-Itsaso | Udal-Elkartea | UGGASA | Urre |
| **1.1.2. Udaletan berdintasun politikak aurrera eramatea, sailen arteko koordinazioa eta elkarlana bermatzeko, egiturak, bitartekoak eta formulak sortzea eta elikatzea.** | Koordinazioa eta elkarlana bermatzeko Udaletan sortu diren egiturak, bitartekoak eta formulen deskribapena | | | | | | | |
| | Koordinazio-egituren bilera-kopurua eta horietan parte hartu duten udal-sail kopurua. | | | | | | | |
| **1.2.1. Genero-ikuspegia txertatzeko prestakuntza areagotzea udal-teknikari eta Udal-Elkarteko langile eta Uggasako teknikarien artean.** | Udaletako trebakuntza-planetan, genero-zeharlerrotasuna txertatzeko trebakuntzarekin zerikusia duten ikastaroen % | | | | | | | |
| | Trebakuntza horietan parte hartu duten pertsona-kopurua (sailka) eta gogobetetze-maila. | | | | | | | |
| **1.3.4.Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea.** | Berdintasunerako klausulak txertatu diren kontratuen % | | | | | | | |
| | Klausulak txertatu dituen sail-kopurua. | | | | | | | |
| **1.3.5.Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea (Generoaren Araberako Aurretiazko Ebaluazioaren azterketak)** | GEAEa kopurua, Udalaren/Erakundearen eta sailaren arabera sailkatuta. | | | | | | | |
| **1.3.6.Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea.** | Eredua definitu da: Bai/Ez | | | | | | | |
| | Martxan jarritako ekimen-pilotu kopurua | | | | | | | |

**Tresna elikatzeaz Berdintasun Saila arduratuko da nagusiki**; hala ere, aproposena litzateke udalek zein Uggasak bakoitzari dagozkion ekintzen betetze-maila osatzea. Honen segimendua egiteko baliatu litezke koordinaziorako sortutako guneak.

Informazio hau guztia, aurrez aipatutako memoria-txostenak elikatzeko baliagarria izango da.

### 15.3. Ebaluazioa

Planaren indarraldia 6 urtekoa izanik, **tarteko ebaluazioa bat egingo da 2023. urtean**, legegintzaldi aldaketarekin bat eginez. Eta **bukaerako ebaluazioa 2026ko bukaeran.**

- Ebaluazioak egiteko urteko memorien, segimendurako tresnaren eta koordinazio- eta kudeaketa-egituren bidez jasotako informazioa erabiliko da.
- Planaren ebaluazioa (eta balizko egoeraren diagnostiko berria) burutu ahal izateko, **eragile gako batzuekin sakoneko elkarrizketak** zehaztuko dira aurrez jasotako adierazleak informazio kualitatiboarekin osatzeko.
- Ebaluazioari begira **hainbat lan-saio** proposatuko dira herritarrekin, udaleko teknikariekin, Uggasako teknikariekin, ordezkari politikoekin, zein beharrezkoa ikusten den beste edozein eragilerekin, ikuspuntu anitz guztiak jaso ahal izateko.

Ebaluaziorako **irizpide orokorrak** honako hauek izango dira:

- **Inpaktua**: Planak udal-elkartean, Udalen barruan, Uggasaren baitan eta eskualde-mailan herritarrengan izan duen eragina eta eragin dituen aldaketak neurtzea.
- **Eraginkortasuna**: Planaren erronka eta helburuen betetze-maila eta neurrien garapen-maila.
- **Estaldura**: Planaren onuradunen kopurua eta Planaren garapenean lortutako parte-hartzea zenbatekoa eta zer kalitatekoa izan den.
- **Betearaztea**: ezarritako kronogramaren betetze-maila eta Planari esleitutako aurrekontuaren egokitasuna.
- **Kalitatea**: Planaren segimendu eta ebaluazioan bildutako datuen eta informazioaren kalitatea.